

2020ko EKAINAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **7 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2020ko ekainaren 30ean, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illaramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita ad.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Gai-zerrendan dauden gaiak aztertzen hasi aurretik, alkate jaunak adierazi du Zarauzko Udala bat egiten duela ekainaren 28an izan den SEXU-ASKAPENAREN NAZIOARTEKO EGUNarekin eta, halaber, LGTBI kolektiboaren Arretarako Euskal Zerbitzuak egindako komunikatuarekin. Hori esanda, komunikatua bera irakurri du.

LGTBI kolektiboa aurten berriro bildu da ekainaren 28an, eskubideak eta bizikidetzaren aniztasunetik aldarrikatzeko, euskal gizartearen aurrean. 1969ko ekainaren 28an New Yorken Stonewall-eko errebolta gertatu zenetik (iaz ospatu genuen 50. urteurrena), egun hori hartu izan da, urtero, gure aldarrikapenak eta lorpenak

agerian jartzeko eta, ezinbestean, oraindik lortzeko dugun guztia ere nabarmentzeko.

Zarauzko Udalak eskerrak eman nahi dizkie sexu-askapenaren aldeko borrokan bizitza eman eta ahaleginak egin dituzten guztiei eta gaur egun ere gizartea sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eraldatzeko lanean antolatuta jarraitzen dutenei. Era berean, hemen eta gure mugetatik kanpo isilik irauten ari diren pertsona guztiak ere gogoratu eta ahaldundu nahi ditu. Eta oso bereziki 2020. urte honetan, ezohiko egoera hau bizitzen ari garen honetan.

Mundu osoan itxialdi orokorra egitera behartu gaituen pandemiak erabateko babesgabetasun eta ikusezintasunean utzi ditu kolektiboko pertsona asko eta asko. Gertatu diren egoera askoren artean, bereziki kontuan izan nahi ditugu beren bizikidetzaren inguruan berriz armairuan gorde beharra izan duten pertsona guztiak eta hurbilekoen zainketen zama beren gain hartu duten LGTBI pertsona guzti-guztiak, aldi honetan bereziki jasan baitute bakardadea eta urruntasuna.

Zarauzko Udalak garbi dauka ezin duela guardia jaitsi. Azken urteotan, begi bistakoa da ideologia faxista defendatzen duten taldeak itzultzen ari direla; ikusten da nola saiitzen ari diren, baita foro publiko jakin batzuetatik ere, LGTBI kolektiboaren eskubideei eta pertsona guztien berdintasunari buruzko zalantzaren hazia mahai gainean jartzeko.

Horregatik uste dugu berebiziko garrantzia duela LGTBI pertsonen bizitzak eta eskubideak babesteko dituzten legezko arau berrituak egotea. Oso garrantzitsua da, baita ere, LGTBI kolektiboak egun bizi duen errealitatea ezagutzea, egiaztatutako eta kuantifikatutako datuekin, kaleko zurrumurruek eta kontuak baztertuta.

Gaur, ikusgaitasun lesbikoaren egunak, trans eta bi egunak, trans despatologizazioaren eta LGTBIfobiaren kontrako egunak... bat egin dute bakoitza den bezalakoa izateko eta nahi duen bezala desiratzeko harrotasuna aldarrikatzeko, denok geure aniztasunean.

Horrenbestez, pertsona guztiak animatzen ditugu egun hau aprobetxa dezatela sexu-askapenaren alde lortzen ari garen aurrerapen guztiak ospatzeko.

COVID-19aren urtean oso konplexua da LGTBI kolektiboarentzat kalera irtetea bere errealitatea ikusaraztera eta aldarrikaztera. Gainera, gure ustez arduragabekeria litzateke herritarrei kalean bilera masiboak egiteko deitzea. Baina krisietatik aukerak ere atera behar dira, eta, horregatik, ez dugu aukera hau galdu behar garai honek eman diguna hausnartzeko eta gure gizartea eraldatzeko. Eraldaketa horretan baztertu egingo dugu bereizten gaituen guztia eta, aldiz, bizikidetzaren arauak indartu egingo ditugu, LGTBI kolektiboko pertsonen eta orohar pertsona guztiak askatasuna izan dezaten diren bezala izateko eta azaltzeko.

Beraz, herritarrei eskatzen diegu sentsibilizazio eta aldarrikapen ekitaldi guztiekin bat egin dezatela, foro publikoetatik, komunikabideetatik eta sare sozialetatik erakuts dezatela gaur aniztasunaren aldeko borrokaren eguna dela, eta balkoietan eta leihoetan bandera bat zintzilika dezatela.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2020ko MAIATZAREN 28ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200630&punto=1>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- 2020ko EKAINAREN 15eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200630&punto=2>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2020ko maiatzaren 25etik ekainaren 23ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200630&punto=3>

Segidan, Alkatetzak 2020ko maiatzaren 25etik ekainaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2020ko ekainaren 15etik 22ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200630&punto=4>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 15etik 22ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- ALKATETZAREN 0449 DEKRETUA BERRESTEA

– Kreditu aldaketarako espedientea, 2020-KALD-000004-00 zk. (Kreditu gehigarriak).

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200630&punto=5>

Segidan, idazkariak dekretu hau irakurri du:

– Alkatetzaren 0449 Dekretua, 2020ko maiatzaren 27koa:

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000004-00 zenbakiduna.

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 3/2020 Foru dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, 2. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

Lehena.- Prozeduraren instrukzioarekin eta antolamenduarekin jarraitzea eta ez etetea horren tramitazioko epeak, oinarrizko udal-zerbitzuen funtzionamendua mantentzeko, hau da, aurrekontuaren exekuzio egokia bermatzeko.

Bigarrena.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	Gastu arruntak	100.000,00
4	Dirulaguntzak eta transferentziak	1.210.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		1.310.000,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	1.310.000,00
GUZTIRA		1.310.000,00

Hirugarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.”

Zinegotzi guztiek aldeko botoa emanda, aho batez, transkribatutako Dekretua berrestea ERBAKI DU Udalbatzarrak.

6.- GAZTEEK PROIEKTUAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK. HASIERAKO ONESPENA. 2020. URTERAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

Espedientea: 2020WWWW0003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200630&punto=6>

2016ko uztailaren 28an egindako osoko bilkuran, udalbatzarrak GAZTERIA DEPARTAMENTUTIK SORMENERAKO ETA KULTUR HEDAPENERAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK onartu zituen. Horien testu osoa 2016ko irailaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (185 zk.) argitaratu zen.

Orain, Gazteria Departamentuak proposamen bat aurkeztu du dirulaguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2020ko martxoaren 12an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespina ematea goian aipatutako GAZTEEK PROIEKTUAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEI, erantsitako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartutako testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- Berariaz indargabetzea orain arte indarrean zeuden Gazteria Departamentutik SORMENERAKO ETA KULTUR HEDAPENERAKO DIRULAGUNTZAK emateko oinarri bereziak.

Bosgarrena.- 2020. urterako Oinarri Espezifikoak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

GAZTEEK PROIEKTUAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentutik gazteei, norgehiagoka araubidez, era anitzeko proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Urtean zehar edozein arlotan egindako proiektuak, gazteen interesa eta grina berezia islatzen dutenak, banaka zein taldeka aurkeztuak.

Adibide gisa jarraian zerrendatzen direnak:

- Ekintzailera proiektuak
- Zientziaren inguruko proiektuak

- Ikus-entzunezko lanen produkzioa (zinea, bideoa, erakusketak...) edo teknologia berriekin erlazionaturikoak.
- Musikagileen maketen grabaketa eta edizioa.
- Komiki, fanzine edo bestelako kultur argitalpenen edizioa.
- Antzezlanen produkzioa eta antzezipena.
- Zarauztar gazteek gauzatu ditzaketen beste proiektu batzuk.

Dirulaguntza hauen iraupena honakoa izango da: deialdia egiten den urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

2. DIRULAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK

Oinarri hauetan arautzen diren laguntzen eskatzaile izan daitezke hurrengo baldintzak betetzen dituzten gazteak:

16 eta 30 urte bitarteko adina izatea eta Zarautzen erroldatua egotea azken hiru urtetan; taldean aurkeztuz gero, taldekideen hiru laurdenek bete beharko dute baldintza hori.

Dirulaguntza hauen onuradun izaera izango du dirulaguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, dirulaguntzari dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu, baita legeek edota bestelako arauak ezarritakoak ere.

Dirulaguntzekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko ziurtagiriak edo Gizarte Segurantzakoak ordeztu ahalko dira, interesdunek berariaz hartarako baimena emana duten kasuetan, ziurtagiri horiek emateko eskumena duten entitateek dirulaguntza kudeatzeko erantzukizuna duen organoari behar diren datuak emanda.

Pertsonen eskubideen aurkakoak edo iraingarriak diren edukiak dituzten jarduerak edo programak ez dira onartuko.

Proiektua onartu baino lehen, Gazteria Departamentuak erabakiko du ea aurkeztutako proiektuen edukia bat datorren Gazteria Departamentuaren helburuekin.

Diruz lagunduko diren egitasmoak euskaraz izan behar direnez, hau izango da komunikaziorako tresna bakarra, hedapenean eta jarduera gauzatzera ere bai.

3. ESKAERAK

Dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoek eta baita nortasun juridikoa dutenek ere, gazte proiektu edo jarduera zehatzak egin nahi badituzte.

Dirulaguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

Eskaerek Gazteria Departamentuaren urteko deialdian zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte.

Eskaerarekin batera indarrean dauden arauak eta urteroko deialdiak ezarritako dokumentazioa ere aurkeztuko da.

Eskaerak Zarauzko Udalaren Erregistro Orokorrean edo Udalaren zerbitzu telematikoan aurkeztu behar dira, dirulaguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian zehaztuko da.

4. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Lagundu ahal izango diren kontzeptuak honako hauek izango dira:

- a) Ekintzailera proiektuak
- b) Zientziaren inguruko proiektuak
- c) Ikus-entzunezko lanen produkzioa (zinea, bideoa, erakusketak...) edo teknologia berriekin erlazionaturikoak.
- d) Musikagileen maketen grabaketa eta edizioa.
- e) Komiki, fanzine edo bestelako kultur argitalpenen edizioa.
- f) Antzezlanen produkzioa eta antzezipena.
- g) Zarauztar gazteek gauzatu ditzaketen beste proiektu batzuk.

Dirulaguntza lerro honen barruan eskaerak jasotzeko bigarren epe bat ireki daiteke urteko azken lau hilabeteetan, dagokion aurrekontu partidan dagoen kopurua bi zatitan adjudikatzeko (deialdi bakoitzerako erdia gordeta), urteroko deialdian hala zehaztuko balitz. Hau da, urtero, lehenengo deialdian, zehaztuko da eskaerak egiteko deialdi bakarra edota bi egingo diren.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du aurkeztutako programa edo ekintzaren kostuetako gastuen % 40a gaindituko. Kostuetan diru-sarrerak % 60ra iristen badira dirulaguntzaren kostu osoaren % 100a finantzatu daiteke. Beti kontuan izango da dirulaguntzaren kopuruak ezingo duela, banaka edo beste dirulaguntza batzuk kontuan izanda, ekintza edo programaren kostua gainditu.

Irizpideak:

- Proiektu berritzaileak: 42 puntu
- Hiritartasun aktiboa eta herriko bizitza soziokulturean partaidetza: 33 puntu
- Gazteen interesa eta grina piztuko duten proiektuak: 17 puntu
- Hartzailak gazteak (16-30 urte) dituzten proiektuak: 8 puntu

Goian jasotako atalen aplikazioak puntuazio zehatz bat emango dio eskaera bakoitzari, lehentasun-hurrenkera ezarritik. 50 puntu gainditzen dituzten eskaerak onartuko dira eta, nahiko diru ez balego horien artean hainbanaketa egingo da.

5. LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira.

1. Zehaztapena

Dirulaguntza lerro horretan dagoen diru kopuruaren banaketa puntuen arabera proportzioan egingo da aurkeztu eta onartutako proiektuen artean.

2. Adjudikazio proposamena

Irizpide horiek kasu bakoitzean aztertu eta baloratuko ditu ebaluazio batzordeak.

Ondoren, laguntzak adjudikatzeko proposamena egingo da, kasu bakoitzean, goian adierazitako moduan.

Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Nolanahi ere, azken zatiaren ordainketa egindako gastuaren justifikazioaren baldintzapean geratuko da.

6. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK FINANTZATZEA

Dirulaguntza oinarriek, eranskinen arabera, diruz lagundutako jardueraren finantzaketa propioaren zenbateko bat eska dezakete. Diruz lagundutako jarduerarako ekarpen propioa egiaztatu beharko da jardueran izandako gainerako gastuen modu berean.

Dirulaguntza eranskinetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste herri-administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

Dirulaguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste dirulaguntzekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan, etorkizunean diruz lagundutako proiektuak sortu ditzakeen irabaziak aintzat hartu gabe.

7. IZAPIDEA

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Gazterriko arduraduna
- Balorazio Batzordea: Kide anitzeko organo bat, gaztediaren inguruko gaiak jorrotzen direna.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

Dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzea Gazteria Departamentuaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak egitea, ofizioz, ebazpen proposamena gauza dadin beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

Gazteria Departamentuak dirulaguntza eskaerei buruz egingo duen aurre ebaluazioarekin hasiko da instrukzio fasea. Aurre ebaluazioak egiaztatuko du, eskatzaileak dirulaguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarriak dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Gazteriako arduradunak dirulaguntza deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egingo du.

Eskaerak ebaluatu ondoren, ebazpen proposamena egingo du Balorazio Batzordeak. behar bezala arrazoituta, eta organo eskudunari aurkeztuko dio ebazpena eman dezan.

Ebaluazioaren emaitza dirulaguntza ez ematekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, interesdunei 10 eguneko epea eskainiko zaie entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

8. EBAZPENEA

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

Ebazpena arrazoitu egingo da, eta nolana ere, prozeduran ziurtatu egin beharko dira onartzen den ebazpenaren oinarriak, eta horretarako kontuan izango dira dirulaguntzak emateko arauetako irizpide objektiboak.

Dirulaguntza emateko ebazpenak argi zehaztu beharko ditu dirulaguntzaren xedea, eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordainketa erak eta epeak, eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurtsio bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, eta interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtsio bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Prozeduraren ebazpenak eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozeduraren barnean gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak xedatutakoaren arabera.

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesdunei indarrean dagoen araudiak jasotzen duenaren arabera.

9. ZUZKIDURA ETA AURREKONTU PARTIDA

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Gazteria Departamentuaren urteko deialdian ezarriko dira.

Aurrekontuan izendatutako diru kopurua nahikoa ez bada dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean.

10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Pertsona onuradunaren betebeharrak hauek dira:

- a) Dirulaguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu edo jarduera egin. Bere produktuaren aurkezpena egin Gazteria Departamentuarekin elkarlanean.
- b) Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatu beharko du dirulaguntzak emateko edo horiek gozatzeko baldintza modura jarri diren betekizunak eta baldintzak bete direla, jarduera egin dela, eta dirulaguntzaren xedea bete dela.
- c) Organo emaileak indarrean dagoen legediaren arabera egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta horietan lagundu, bai eta kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere. Horretarako aurreko eginkizunetan ari direla eskatzen dioten informazio guztia aurkeztu beharko du.
- d) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatu.

Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizuneko aitortpena aurkeztu daiteke, besteak beste, kasu hauetan:

- 3.000€-tik beherako dirulaguntza eskaeretan.

- Zarauzko Udaleko organo eskudunak dirulaguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa direla-eta, behar bezala justifikatutako egoerak gertatzeagatik ezartzen dituenak.

Gainerako kasuetarako, pertsona eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena erantsi ahal izango du, eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

Zarauzko Udalaren zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, hiritarrek eskubidea dute Administrazioaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko. Kasu horretan tokiko erakundeak berak ziurtagiri bat egingo du, eta espedienteari erantsiko zaio.

- Lau urteko epean gordeko dira hartutako fondoan aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol-jardunen aztergai izan daitezkeelako.
- Organo emaileari jakinarazi, hala badagokio, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazioko zein nazioartekatutik, diruz lagundutako jardueraren finantzatzen duten beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana.
- Dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- Indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzuli.
- Diruz lagundutako jardueraren hedapen-ekintzetan, jasota geratu beharko da Zarauzko Udalak dirulaguntza bidez emandako lankidetzak.
- Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.
- Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz bakarrik idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz soilik transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jardueraren egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Dirulaguntza eskatu nahi dutenek urteroko deialdian zehazten den eskaera-fitxa bete beharko dute. Inprimakiarekin batera agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Egingo diren gastuen aurrekontua.
- Taldeen kasuan, taldeko beste partaideen izen-deiturak eta NANaren zenbakia.
- Proiektuaren azalpena.
- Dirua sartzeko kontu korrante zenbakia.

Gazteriarako arduradunak bide-laguntza emango die proiektuak aurkezteko, hala eskatzen duten gazteei.

Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

11. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Laguntzak ordaintzeko aurretik Gazteria Departamentuaren aldeko txostena beharko da. Bertan egiaztatuko da laguntza emateko erabakian jarritako baldintzak bete direla.

Dirulaguntza ordainketa bakar batean egingo da banku-transferentzia bidez, zuritu eta gero.

Ez dago graduazio irizpiderik, erabiliko den irizpide bakarra jardueraren edo ekintza egin den edo ez izango da.

12. DIRULAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa indarrean dagoen araubideari jarraiki egingo da, eta Gazteria Departamentuaren urteko deialdian ezartzen den epeetan aurkeztu beharko da.

Dirulaguntzaren erabilera hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen justifikatu beharko da. Xede den proiekturako memoria, fakturak eta produktua aurkeztuz zurituko dira dirulaguntzak.

13. PUBLIZITATEA

Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren webgunean eta udaleko iragarki oholean argitaratuko da.

Bestalde, dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz soilik. Publizitate horretan, lehentasunezko tokian honako hau azaldu behar da Zarauzko Udalaren logotipoaren ondoan (liburuxketan eta eskuko programetan, azal nagusian edota atzeko azalean): “Jarduera honek Zarauzko Udalaren laguntza jaso du”. Finantzaketa publikoari buruzko aipamenak ere egingo dira txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektronikoko edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

14. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako betebeharretakoren bat bete ezean, dirulaguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, Zarauzko Udalak dirulaguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango du, eta baita itzultzeko eskatu ere, indarrean dagoen legedian aurreikusten duen baldintzetan.

15. ERREKURTSOAK

Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeke hautazko errekurtsua aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

7.- ZARAUZKO 10.2 –OR SALBERDIN– AREAREN IPARRALDEKO PARTZELEN PERIMETROAN PANTAILA-HORMAK ERAIKITZEKO HITZARMENA

Espedientea: 2020H9890003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200630&punto=7>

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	–	
Abstentzioak:	9	(8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“10.2 –OR Salberdin– areak jarduketa integratuaren izaera dauka, eta hitzarmen-sistemaren bidez gauzatzen ari da.

2019an, Zarauzko Udalak eraikuntza-lizentziak eman zituen arearen iparraldeko zonako 6 partzeletarako: R1, R2, R4, R5, R6 eta R7.

Kontua da partzela horien sustatzaileak behartuta daudela partzela guztien inguruan pantaila-horma perimetrala eraikitzea, bai eraikuntza-beharrengatik bai

bertan dagoen akuiferoa saneatzeko. Partzeletako sotoen eraikuntza-obren barruan sartuko dira horma horiek.

Zarauzko Udala hiru partzelen jabe da gune berean (AD, G1 eta R3).

Horma-pantailen perimetroa ezin izango da osatu udal partzeletako pantaila-hormak eta bide-guneei dagozkienak egiten ez badira. Baina Udalak ezin ditu eraiki bere pantaila-hormak modu independentean; beraz, beharrezkoa da beste partzeletakoekin koordinatuta egitea, eta gainera teknikoki ere ezinbestekoa da beste guztiakin batera eraikitzea.

Aurrekoa agerian geratu da Javier Corta arkitektoak 2020ko maiatzaren 25ean egindako txostenean.

Areako hitzarmen-batzarra eta partzelen sustatzaileak ados jarri dira Udalarekin, arearen iparraldeko partzelen perimetro osoan pantaila-hormak eraikitzeko.

Udalarekin sinatu beharko duten hitzarmen-proposamen batean jaso da akordio hori. Batzarreko zuzendaritza-kontseiluak 2020ko maiatzaren 28an egindako bileran onetsi zuen hitzarmena.

Hitzarmen-proposamenaren arabera, R2, R5, R6 eta R7 partzelen sustatzaileek eraikiko dituzte udal partzelen pantaila-hormak, eta euren kontratista eta obra-zuzendaritzarekin eramango dute obren zuzendaritza, gainbegiratze eta ikuskapen teknikoa.

Ondorengoa da udal jabetzako partzela bakoitzaren pantaila-horma egiteko aurrekontua (kontrata bidezko gauzatzea eta zuzendaritza fakultatiboa, zergak sartuta):

AD partzela:	656.989,38 €
G1 partzela:	255.296,40 €
R3 partzela:	924.396,80 €
GUZTIRA:	1.836.682,58 €:

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak izapidetu du espedientea.

Lurraldeko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, botoen gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partiden xehetasunaren eta kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euroak
7	Kapital transferentziak	1.836.682,58
	Gaitutako kreditua	1.836.682,58

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euroak
6 (Sarrerak)	Inbertsio errealak besterentzetik eta hirigintzako jardueretatik datozen beste sarrera batzuk	1.836.682,58
	Finantzaketa	1.836.682,58

Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatuko du onartutako kreditu aldaketa.

Udalaren gastu-konpromisoa aldaketa horren bitartez gaitutako kredituari egotziko zaio: 1.1101.771.00.151.00.2020 (Hitzarmena, Salberdineko pantaila-hormak) 1.836.682,58 euro.

Bigarrena.- Onartzea Salberdin areako hitzarmen-batzarrarekin eta R1, R2, R4, R5, R6 eta R7 partzelen sustatzaileekin sinatu beharreko hitzarmena, AD, G1 eta R3 udal partzelen pantaila-hormak eraikitzeko.

Alkateak edukiko du hitzarmena sinatzeko eskumena, Udalaren izenean, bai eta hitzarmenean bertan aurreikusitako Jarraipen Batzorderako bi udal ordezkariak izendatzeko ere.

Hirugarrena.- Sektore Publikoaren 40/2015 Legearen 53. artikulua xedatutakoaren arabera, behin hitzarmena sinatuta, haren berri eman beharko zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari."

ZARAUZKO 10-2 AREAREN -OR SALBERDIN- IPAR ALDEKO PARTZELAK INGURATUKO DITUEN PANTAILA-HORMAK ERAIKITZEKO HITZARMENA

Zarautzen, 2020ko uztailearen 1ean

Alde batetik, Mikel Soraluze Elorza jauna, 10-2 bizitegi areako -OR Salberdin- Hitzarmen Batzarraren lehendakaria, bere izenean eta areako ondorengo sustatzaileen izenean.

- Amenabar Etxegintza Berria SL
- Imogroup SL
- Residencial Salberdia Etxadia SL
- Promociones Salbide SL

Eta bestetik, Xabier Txurruka Fernandez jauna, Zarauzko Udaleko alkate-batzarburua.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Hitzarmen Batzarraren legezko ordezkari gisa, eta 2020ko maiatzaren 28ko zuzendaritza-kontseiluak horrela erabaki ondoren.

Bigarrenak, Udalaren legezko ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ematen dizkion ahalmenak erabiliz, eta *Udalbatzarrek 2020ko ekainaren 30ean horrela erabaki ondoren.*

ADIERAZTEN DUTE:

Lehena.- Zarauzko Udalak ondorengo eraikuntza-lizentziak eman zituen Salberdin arearen ipar aldeko partzelak eraikitzeko:

- 2019ko abuztuaren 5eko Tokiko Gobernu Batzarrek: R2 eta R7 partzelak (Amenabar Etxegintza Berria SL); R4 partzela (Inmogroup SL)
- 2019ko abuztuaren 12ko Tokiko Gobernu Batzarrek: R1 partzela (Residencial Salberdia Etxadia SL)
- 2019ko abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarrek: R5 eta R6 partzelak (Promociones Salbide SL)

Lizentzia guztien baldintzen artean honakoa zegoen: beharrezkoa izango zela lurzoru kutsatuen alorrean eskumena duen organoak baimena ematea hondeaketa-planak, proiektuaren eta hondeaketa-lanak egiteko, hala lurzorua garbitzeko nola sotoa eraikitzeko.

Bigarrena.- 2019ko ekainean, udal eraikuntza-lizentziak eman baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak baimena eman zion Hitzarmen Batzarrari kutsadura duten materialak hondeatzeko, eta partzela horien inguruan dauden lur azpiko uren kalitatea berreskuratzeko proiektua gauzatzeko.

2019ko abuztuaren eta abenduaren bitartean lur azpiko urak garbitzeko injekzio-oxidatzaileko bi kanpaina egin ziren (ISCO teknika). Nahiz eta errekupe-atze-maila nabarmena izan, ez ziren beharrezko helburu-balioak lortu; garbiketa osatzeko beharrezkoa da beste teknika osagarriren bat aplikatzea.

Araoari konponbidea eman nahian, Hitzarmen Batzarrek partzela guztiak inguratuko dituen horma-pantaila eraikitzea proposatu zion ingurumen organoari eta Uraren Euskal Agentziari; horrela lur azpiko uraren garbiketa egin ahalko da ponpaketa eta trataera bidez.

Uraren Euskal Agentziak baimena eman zuen, 2020ko apirilaren 24ko ebazpen bidez. Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak, 2020ko maiatzaren 11n eman zuen hormak eraikitzeko baimena.

Hirugarrena.- Pantaila-horma horiek, akuiferoaren garbiketa ahalbideratzeaz gain, etorkizuneko eraikuntzen irtenbide geoteknikoa izango dira. Hortaz, partzelak eraikitzeko obren zati bati dira, baina ez zeuden aurreikusita Udalak 2019an baimendu zituen proiektuetan.

Partzelen sustatzaileek udal lizentzia eskatu zuten R1, R2, R4, R5, R6 eta R7 partzelen pantaila-hormak eraikitzeko (2020H7300002 espedientea). 2020ko ekainaren 11n eman ziren udal-lizentziak.

Laugarrena.- Aipatu diren zirkunstantziengatik, ezi izan dute partzelak eraikitzen hasi. Metatutako atzerapena 6 eta 9 hilabete artekoa da, kasu bakoitzaren arabera.

Une honetan ez dago obretan hasteko eragozpenik; sustatzaileek baimen administratibo guztiak dituzte. Behar teknikoagatik, adostu dute modu bateratuan eta koordinatuan gauzatzeko pantaila-hormak. Sustatzaile bakoitzak kontratu ditu eraikuntza-enpresa eta obra-zuzendaritza.

Dena den, kasua da Zarauzko Udalak ere, hiru partzela dituela gune berean (AD, G1 eta R3). Horma-pantailen perimetroa ezin izango da osatu, aldi berean udal partzelen eta bide-gune zatien pantaila-hormak egiten ez diren bitartean.

Udal partzela horien pantaila-hormen proiektuak eginak daude.

- G1 partzelarena, Corta estudioko arkitektoek sinatu duten R5 eta R6 partzelen proiektuaren barruan dago.
- AD eta R3 partzelarenak, Jon Roteta ingeniariak sinatu zuen (INAK ingeniarietza); ingeniari horrek R2 eta R7 partzelarenak ere, idatzi zituen.

Baina Udalak ezin du bere pantaila-hormak eraiki modu independentean. Beste partzelekin era koordinatuan egiteko beharrezkin batera, teknika aldetik ezinbestekoa da beste guztiekin batera eraikitzea, eta bereziki:

- AD partzelarenak, R7 partzelarenarekin batera.
- G1 partzelarenak, R5 eta R6 partzelarenarekin batera.
- R3 partzelarenak, R2 partzelarenarekin batera.

Aipatu diren zirkunstantzia bereziak obren izaerari eta konplexutasunari lotuta daude, eta justifikatzen dute Udalak ezin esleitu izana bere jabetzakoak diren partzelei dagokien obra-zatia, eta obra guztia kontratista nagusiak egin behar izana.

Adieazitakoagatik, interes publiko eta pribatuak bat egite aldera, hitzarmen hau sinatu dute, baldintza hauen arabera.

KLAUSULAK

1.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Salberdin arearen ipar aldeko partzelak inguratuko dituen horma-pantailak eraikitzea lur azpiko uraren garbiketa egin ahal izateko ponpaketa eta trataera bidez.

(Hitzarmenari erantsi zaio 1/1000 eskalan dagoen 2020ko maiatzaren 5eko planoan, hormak irudikatu dituen.)

Eraikiko diren pantaila-hormen artean egongo dira udal jabetzakoak diren AD, G1 eta R3 udal partzelen hormak eta bidegune zatien hormak.

Ondorengoa da udal jabetzako partzei esleitutako pantaila-hormen gauzatze-aurrekontua (kontrata bidez gauzatzea eta zuzendaritza fakultatiboa, zergak barne):

AD partzela

Obra: 613.334,31 €
Zuzendaritza: 43.655,07 €
Guztira: **656.989,38 €**

G1 partzela

Obra: 238.332,72 €
Zuzendaritza: 16.963,68 €
Guztira: **255.296,40 €**

R3 partzela

Obra: 862.973,40 €
Zuzendaritza: 61.423,40 €
Guztira: **924.396,80 €**

Hiru partzelen aurrekontua, guztira: 1.836.682,58 €:

(Hitzarmenari erantsi zaio partzela bakoitzaren aurrekontu xehatuak duen taula bat)

2.- SOZIETATE SUSTATZAILEEN ETA HITZARMEN BATZARRAREN KONPROMISOAK

a.- Pantaila-horma guztiak eraikitzea (Udal partzelarenak barne) eta obrak zuzentzea, gainbegiratzea eta alderdi teknikitik ikuskatzea, euren kontratista eta obra-zuzendaritza propioekin, ondorengoaren arabera:

- a.1.- AD partzelaren hormak, Amenabar Etxegintza Berria SL-k, R7 partzelarenarekin batera..
- a.2.- G1 partzelaren hormak, Promociones Salbide SL-k R5 eta R6 partzelarenarekin batera.
- a.3.- R3 partzelaren hormak, Amenabar Etxegintza Berria SL-k, R2 partzelarenarekin batera.

Cimentaciones Abando SA enpresak egingo ditue obrak.

INAC ingeniarietak eta Corta arkitektoen estudioaren artean eramango dute obra-zuzendaritza

Lau hilabetekoa da obrak gauzatzeko aurreikusi duten epea. Ez da prezioen berrikuspenik egongo.

Gauzatzea sustatzaileen gain eta kontura izango da, Sektore Publikoko Kontratu Legearen 239 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

b.- Sektore Publikoko Kontratu Legearen 107 eta 150 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, hitzarmena sinatu eta 10 egunetako epean, obra bakoitzaren sustatzaile arduradunak aurreikusi den eraikuntza kostearen %5eko fidantza jarri beharko du. Hau da:

- b.1.- AD partzela (Amenabar Etxegintza Berria SL): 30.666,72 €
- b.2.- G1 partzela G1 (Promociones Salbide SL): 11.916,64 €
- b.3.- R3 partzela R3 (Inmogroup SL): 43.148,67 €

Garantia-epea urte betekoa izango da Udalak obra jasotzen duen egunetik kontatuta.

c.- Behar izanez gero, obren eta horren zuzendaritza fakultatiboaren kostua aurreratzea. Sustatzaileek, Hitzarmen Batzarraren bidez, egindako obren hileko ziurtapenak aurkeztuko dute eta Udalari ordaintzeko eskatuko diote.

d.- Obrak amaitu ondoren, eraikitako pantaila-hormak Udalari emango zaizkio, kontserbazioa eta mantentze lanetarako. Horretarako, hartze-akta edo aktak formalizatuko dira, sektore publikoko kontratuen legedian xedatutakoaren arabera.

d.- Hitzarmen Batzarra izango da hizketakidea Zarauzko Udalarekin, hitzarmena betetzearen ondorioetarako.

3.- ZARAUZKO UDALAREN KONPROMISOAK

a.- Bere partzelen obren segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzea. Adierazi da Berrilan SL enpresari esleitu zaiola koordinazio hori.

b.- Elkarlanean aritzea Hitzarmen Batzarrarekin, eta dagokion laguntza beharrianetan parte hartu lanen exekuzio zuzenerako.

c.- Sustatzaile bakoitzari lanen kostuaren eta zuzendaritza-fakultatiboaren ordain sarien %100 ordaintzea; horretarako 1.836.682,58 €-ko partida jarriko du 2020ko udal aurrekontuan.

d.- Ordainketa edo ordainketak, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo dira, partzela bakoitzaren obra-amaierako ziurtagiria aurkezten denetik eta beti ere, udal teknikoek aldeko txostena egin ondoren.

e.- Udal-partzelen pantaila-hormak formalki eskuratzea eta hori, sektore publikoko kontratuen legedian jasotako arauen arabera.

f.- Kostuen gehikuntzari aurre egitea, justifikatuta egon daitezkeen arrazoiengatik egon daitezkeen kontratuzko aldaketen ondorioz (esaterako, baldintza geoteknikoak, ukitutako zerbitzuak, kalitateen aldaketak, hondakinen kudeaketa...)

4.- OBREN JARRAIPENA

a.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzordea eratuko da. Batzordea lau ordezkari osatuko dute: Hitzarmen Batzarreko bik eta Udaleko beste bik, eta hitzarmen honen sinatzaileek aukeratuko dituzte, hurrenez hurren. Halaber, obren zuzendari fakultatiboak parte ahal izango dute (bozkarik gabe).

b.- Honakoak izango dira batzordearen eginkizunak:

b.1.- Obrak behar bezala gauzatzen direla egiaztatzeko segimendua egitea, elkarren arteko informazioa eta alde bakoitzaren konpromisoak behar bezala bete direla ikusteko ezarri beharreko irizpideak eta erak ezarri, alde bakoitzari dagozkion irizpideak betetzeko prozesua ahalik eta gehien arintzen saiatuz.

b.2.- Hitzarmenaren xede diren jarduketak beteko direla bermatzeko beharrezkoak izango diren neurriei buruzko informazioa ematea eta horiek proposatzea.

b.3.- Hitzarmenak sor ditzakeen interpretazio eta burutzapen arazoaren ebazpena bilatzea.

b.4.- Batzordea, jarduketan martxa egokiak hala eskatzen duen une oro bilduko da, eta aldeetako edozeinek hala eskatzen duenean. Haren presidentzia eta idazkaritza Zarauzko Udalaren esku egongo da. Bilerarako eta akordioak hartzeko quoruma kideen aho batekotasuna izango da.

5.- HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA

Hitzarmenak izaera administratiboa du. Ondorioz, antolamendu juridiko administratiboak arautuko du. Modu partikularrean aplikagarria izango da Sektore Publiko Kontratuen Legea

Bi aldean adostasunez aldatu liteke

6.- INDARRALDIA, IRAUPENA ETA IRAUNGIPENA

Hitzarmenak, hasiera batean, BOST HILABETEKO iraupena edukiko du, baina, aldeek nahi izanez gero, luzatu ahalko da, baldin hitzartutako konpromisoak ez badira guztiz bete.

Arrazoi hauengatik iraugiko da hitzarmena: bere indarraldia bukatu delako; helburuak guztiz bete direlako; edo aldeetako batek hartutako konpromisoak bete ez eta hitzarmena bukatu delako. Hitzarmena bukatzen bada, aldeek zehaztuko dituzte bukatzeko baldintzak eta egiten ari diren obren ordainketak.

Eta adostasuna adieraziz, bertaraturako dokumentu hau bi kopian sinatzen dute, hasieran adierazitako tokian eta egunean.

8.- ZARAUZKO PODEMOS-EQUO-BERDEAK. 2015EKO UDAL AKORDIO BAT BALIOGABEA DELA AITORTZEKO ESKAERA (AIAKO AMEZTI ERAIKINARI UR-HORNIDURA BAIMENTZEA).

Espedientea: 2020HHHH0005

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200630&punto=8>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Bukaeran, udal talde bakoitzak bere iritzia eman du.

Bozketa eginda, honela geratu da:

Botoak alde	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	9	(8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)
Abstentzioak	—	

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Alkatetzaren 2015eko abuztuaren 17ko Dekretu bidez, Zarauzko Udalak baimena eman zien Aiako Amezti eraikinaren jabeei ur-horniduraren hargunea Zarauztik egiteko.

2020ko martxoaren 13an Oihane Delgado zinegotziak, Zarauzko Podemos-Equo-Berdeak taldearen izenean, udal akordio hura baliogabea dela aitortzeko eskaera aurkeztu zuen. Alegatu dute ur-hargunea baimendu zitzaion eraikinak ez duela betetzen hirigintzako eta lurraldeko antolamendua, eta, hortaz, udal akordioa 39/2015 Legearen 47.1.f artikuluan aurreikusitako baliogabetasun kasuan sartuta dagoela (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Espedientearen tramitazioa etenda egon zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak eskaerari buruzko txostena egin du (287/2020, ekainaren 3koa). Horren arabera, ez dago arrazoirik akordioa baliogabea dela aitortzeko, eta eskaera ez tramitatzea proposatu du.

Lurraldeko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, botoen gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Zarauzko Podemos-Equo-Berdeak taldearen izenean, Oihane Delgado zinegotziak 2015eko abuztuaren 17ko udal akordioaren baliogabetasuna aitortzeko aurkeztu duen eskaera ez tramitatzea.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko txostenean oinarritu da akordioa; hona hemen arrazoibideak laburbilduta:

Egintza administratibo baten baliogabetasunaren adierazpena oso modu murriztailean aplikatu behar da. Kasu honetan ez da zirkunstantziarik antzematen udal akordioaren legezkotasun-presuntzioa urratzeko.

Horretarako eskumena zeukan organoak hartu zuen erabakia (Alkatetza), eta prozedura egokia jarraituta izapidetu zen espedientea.

Amezti eraikina Aian dago, baina ez da legez kanpokoa ur-hornidura Zarauztik ematea. Berez, udal ordenantzan aurreikusita dago, eta antzeko beste kasu batzuk ere badaude.

Amezti eraikinak betetzen ditu ur-hargunea baimentzeko funtsezko baldintzak. Aiako Udalak 2013ko urtarrilaren 25ean eman zuen eraikina egiteko obra-lizentzia, eta 2017ko azaroaren 13an lehen-erabilerako baimena eman zion.

Zarauzko Udalak ez dauka eskumenik beste udalerrri batean emandako lizentzia bat baliogabetzeko. Bestalde, ez da inon jasota agertzen ebazpen judizial batek lizentzia baliorik gabe utzi duenik.

Aipatu diren zirkunstantziengatik, bidegabea eta ausarkeria litzateke ur-hargunea ez baimentzea edo emandakoa kentzea.

9.- ESKARI-GALDERAK.

<http://bideoakta.zarauz.eus/?pleno=20200630&punto=9>

Gai-zerrendako puntu honetan gai hauek izan dituzte hizpide

- **Vazquez** andreak bi gai hauek azaldu ditu, EH Bildu taldeari zuzenduta: lehenbizikoa, talde horren bozeramaileak aipatutako euskararen eta gaztelaniaren erabilerari buruzkoa; eta, bigarrena, San Pelaio bezperan ETArek aldeko pankarta bat jartzeari buruzkoa.
- **Murua** andreak adierazi du bilkura hartan bere harridura erakutsi zuela bilkuretan gaztelania gero eta gehiago erabiltzen zelako, nahiz eta Udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartua eduki. Eta, bigarren gaiari buruz, pankarta ez zela ETArek aldekoa, presoak hurbiltzearen aldekoa baizik.
- **Delgado** andreak idazkariari galdetu dio erregelamendu organikoak zer jasotzen duen pankarta eta antzekoei buruz. Eta idazkari andreak erantzun dio ez duela ezer aipatzen.
- **Arozena** jaunak informazioa eskatu du Udalak Twitter kontuan herritarren datuak kaleratu izanari buruz.

Alkate jaunak erantzun dio ez duela gaia ezagutzen eta informazio eskatuko duela.

- Amaitzeko, **Txurruka** jaunak zinegotzi guztiei eskatu die udal funtzionario eta teknikariekiko errespetua.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko hamarrek eta hamarrean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.